

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Tokiko Gobernu Batzarraren 2019ko otsailaren 7ko Erabakiaren laburpena, zeinaren bidez 2018-2019rako ikerketa beka baterako deialdia egiten baita Amurrioko eta bere administrazio batzarretako etxe, baserri eta auzoen izenen toponimoak berreskuratzeko

BDNS(Identif.): 440302

Onuradunak: Ondorengo tituluetakoko bat duten pertsona fisikoak: lizentzia, diploma edo erdi-mailako LHko ikasketak. Gainera, EGA edo baliokidea izan beharko dute.

Xedea: Deialdi honen helburua da laguntza ekonomikoak arautzea Amurrioko eta bere administrazio batzarretako etxe, baserri eta auzoen izenen toponimoak berreskuratzeko.

Oinarri arautzaileak: Amurrioko Udalaren Tokiko Gobernu Batzordeak 2018ko abenduaren 13an onetsi zituen, eta ondoren haien testu osoa 2018ko abenduaren 28ko ALHAOn, 149. zenbakian, argitaratu zen.

Zenbatekoa: Deialdi honetako bekaren zuzkidura bi mila (2.000) euro da. Gastua 33592.480 partidatik egingo da.

Zenbateko horretan egoki diren atxikipenak egingo dira, PFEZren araudian ezarritakoari jarraituz, "Zerbitzu Orokorretako Langileen Gastuak XX. I." partidatik, hain zuzen ere, 321,84 euro.

Eskaerak aurkezteko epea: 15 egun baliodun, deialdia ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik aurrera. Garaiz eta behar bezala aurkezten diren eskaerak baino ez dira onartuko izapidetzeko.

Amurrio, 2019ko otsailaren 18a

Alkatea

MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA